

AGINDUA, 2001eko abenduaren 18koa, Herrizaingo sailburuarena, zenbait alderditan osatzen dituen: 26ko 277/1996 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onetsi zuena, eta joko makina, makina lagungarri eta beste joko sistema eta instalazio batzuei buruzko Araudia, abenduaren 24ko 308/1996 Dekretuaren bidez onetsi zena.

Euroa moneta bakartzat ezarri da, Elkartearen 1.103/97 eta 974/98 araudiak eta horiek garatu dituen abenduaren 17ko 46/1998 Legea, euroaren sarrerari buruzkoa, direla bide. Euroaren ezarpenaren ondorioz arauzko neurriak jarri behar dira moneta-unitateak egokitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoa onetsi zuen azaroaren 26ko 277/1996 Dekretuan, hain zuzen ere kasinoei buruzko atalean; bestalde, C makinaren inguruko alderdi batzuk egokitu egin behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko joko makina, makina lagungarri eta beste joko sistema eta instalazio batzuei buruzko Araudian; beraz abenduaren 24ko 308/1996 Dekretuaren bidez onetsi zen.

Horrenbestez, eta indarreko antolamendu juridikoak eman dizkidan ahalmenak erabiliz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehen artikulua. 1.- Jokoen Katalogoak, azaroaren 26ko 277/1996 Dekretuaren bidez onetsitakoak, arautzen dituen kasino-jokoetan, apustuetao fluktuazio tarteak 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera eurotan adieraziko dira, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak ebazpen bidez xedatuko duen moduan.

2.- Hala ere, 2002ko otsailaren 28ra arte kasinoetako jokoetan apustuak pezetatan egin ahal izango dira gaur egun indarrean dauden fluktuazio tarteetan, baldin eta mahaietako erabiltzaileei jakinarazten bazaie, jendaurrean jakinarazi ere.

3.- Dena dela, 2002ko otsailaren 28ra arte, aurretik adierazi behar da zein moneta erabiliko den jokaldi bakoitzean, eta zirkulu edo kontrapartidako joko bakoitzeko.

Bigarren artikulua.- Hainbat apustu-lerro izateko diseinaturik dauden C motako makinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko joko makina, makina lagungarri eta beste joko sistema eta instalazio batzuei buruzko indarreko Araudiaren 10.a) artikuluan araututako gehieneko apustuaren goiko muga zehazteko, banaka hartu ahal izango dira apustu-lerroak edo konbinazio saridunak, muga hori zehazte aldera,

hala zehazten badu kasuan kasuko homologazioak edo Euskal Autonomia Erkidegoko joko makina eta beste joko sistema eta instalazio batzuei buruzko Araudia onetsi zuen Dekretua bigarrenaz aldarazi duen otsailaren 8ko 25/2000 Dekretuaren lehen xedapen erantsiak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera kasinoetan diru kopuruei buruzko informazio guztiak eurotan emango dira, beste kontu-unitate batzuetan eman daitekeen informazioaren kalterik gabe.

Bigarrena.- Sarien zenbatekoak eurotan emateko, zenbaki osoak emango dira, hamartarrik gabekoak. Zenbakia biribildu beharra dagoenean hamartarrak kentzeko, goragoko zenbaki osora joko da baldin eta hamarrena bost edo hortik gorako zenbakia bada, eta beheragoko zenbaki osora, bestela.

Hirugarrena.- Kasino-jokoetan erabiltzen diren sistema eta instalazioei moldapen teknikoak egin behar zaizkie eurotan jardun ahal izateko. Aurretik Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak baimena eman beharko du, eta beharrezkoak deritzen egiaztapenak egin ahal izango ditu egokitzapenaren ondorioetarako.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau 2002ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko abenduaren 18a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.